Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko erakundearteko Beldur Barik programaren zuzendaritza teknikoan ari gara. Foru-aldundiekin ditugun lankidetzahitzarmenak tramitatu ditugu, eta erakunde laguntzaileen bide-orriak ezarri (Hezkuntza Sailarena, Gazteria Zuzendaritzarena, EHUrena eta EITBrena). Programaren idazkaritza teknikoaren kontratazioa kudeatu dugu, eta programa martxan jarri. Aurten, COVID-19aren ondorioz, zenbait aldaketa eta egokitzapen egin behar izan ditugu hasierako proiektuan.

Orobat, enpresa bat kontratatuko dugu programak 10 urteko ibilbidean zehar izandako eragina ebaluatzeko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta sensibilizaziorako jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei dirulaguntzak emateko deialdiak ebatzi ditugu. Aurten, 80 eskabide egin dituzte, eta, horien artean, 43ri eman diegu dirulaguntza.

«Volar» filmaren proiektuarekin jarraitu dugu. Dokumentala herrialdeko zenbait herritan proiektatu da (dokumentalaren 35 kopia eskatu dira aurten). Indarkeria sexistatik bizirik atera diren emakumeen elkarteekin elkarlanean egindako lan-prozesuaren emaitza izan da proiektu hori, eta haien kontakizunak biltzen ditu filmak.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei jasandakoa gaintzen laguntzeko proiektuaren barruan, harremanetan gabilta emakume-elkarteekin. COVID-19ak eragindako itxialdi- eta deskonfinamendu-garaian, 3 bilerak egin ditugu elkarteekin, online, eta hainbat aldiz jarri gara harremanetan. Horrela, haien ekarpenak jaso eta ebaluatu ditugu, hartu dituzten neurrien inguruan.

Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko masterra egiteko beken deialdia ebatzi dugu. Deustuko Unibertsitateak ematen du master hori. Aurten, 14 beka eman ditugu.

Jabetuz programaren barruan, online prestakuntzako oinarriko ikastaroaren 11. edizioa eta ikastaro aurreratuaren 5. edizioa abiarazi ditugu (emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa). Ehun (100) plaza eskaintzen dira edizio bakoitzeko.

Se ha participado en concentraciones de repulsa ante agresiones sexistas en diferentes localidades del País Vasco y, con fecha de 11 de marzo de 2020, se ha activado el protocolo ante casos de asesinato de mujeres, debido al asesinato de una mujer y su hija en Abanto-Zierbena.

Se está ejerciendo la dirección técnica del Programa interinstitucional Beldur Barik de prevención de la violencia sexista entre la juventud. Se ha procedido a la tramitación de los convenios de colaboración con las Diputaciones Forales, así como el establecimiento de las hojas de ruta de las entidades colaboradoras (Departamento de Educación, Dirección de Juventud, UPV y EITB). Se ha gestionado la contratación de la Secretaría Técnica del programa y la puesta en marcha del programa. Este año y debido a la COVID-19, ha habido que introducir diversos cambios y readecuaciones en el proyecto inicial.

Asimismo, se va a realizar la contratación para evaluar el impacto del programa en su trayectoria de 10 años.

Se ha resuelto la convocatoria de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsen y promuevan actividades de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres. Este año ha habido 80 solicitudes, de las cuales se han concedido 43 subvenciones.

Se ha dado continuidad al proyecto “Volar” facilitando la emisión del documental en diferentes localidades del país (este año se ha respondido a 35 solicitudes de copias del documental). Un proyecto fruto del proceso de trabajo realizado en colaboración con las asociaciones de mujeres supervivientes de la violencia sexista en el que muestran su testimonio.

Dentro del proyecto de reparación de mujeres víctimas de violencia, se mantiene el contacto con las asociaciones de mujeres. Durante el periodo de confinamiento y desescalada originado por la COVID-19 se han mantenido 3 reuniones online con las asociaciones así como numerosos contactos, que han permitido evaluar y contar con sus aportaciones para las medidas que se han ido tomando.

Se ha resuelto la convocatoria de concesión de becas para la realización del master en intervención en violencia contra las mujeres que se imparte en la Universidad de Deusto. Este año se han concedido 14 becas.

Se han puesto en marcha la edición 11. del curso básico y la 5. edición del curso avanzado del programa de formación on-line en el marco de la iniciativa Jabetuz-Programa de formación a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres en el que se ofrecen 100 plazas/ por edición.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek COVID-19aren pandemiaren esparruan bizi duten egoerari buruzko hausnarketa-dokumentu bat egin dugu, Jabetuz prestakuntza-programaren barnean, programa horretan parte hartzen duten irakasleen laguntzaz. Edeka koordinakundean bildutako erakundeak arduratu dira desgaitasuna duten emakumeen egoera esplizituki kontuan hartzeaz.

EHUko UNESCOren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra kontratatu dugu idazkaritza teknikoaz arduratu dadin Sexu Esplotazioa helburu duen Emakume eta Nesken Salerosketaren kontrako Mahaian.

Ekainaren 18an, lan-saio bat egin genuen Sexu Esplotazioa helburu duen Emakume eta Nesken Salerosketaren kontrako Mahaiaren esparruan esku hartzen duten GKEekin, eta salerosketa-kasuak hautemateko adierazle komun batzuk finkatu genituen.

Bi dirulaguntza izendun eman dizkiegu Askabide elkarteari eta Oblatas kongregazioari, emakumeen salerosketa antzeman eta identifikatzeko, eta egoera hori pairatu duten emakumeentzako laguntza eta arreta osoa kudeatzeko.

Sexu-esplotazioa helburu duen emakume eta nesken salerosketaren biktima diren emakumeentzako egoitzabaliabide berri bat abiarazi dugu.

Berdinsarearen esparruan, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioak eta programak diseinatzen lagundu dugu.

EAEen emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko dauden baliabideen arretari buruzko datuen bilketa kontratatu dugu. Laborpen-txostena egin dugu. Aurten, berritasun gisa, alde batetik, COVID-19ak eragindako itxialdiari eta deskonfinamendu-aldiari buruzko datuak bildu ditugu, eta, beste batetik, Istanbulgo Itunean finkatutako beste indarkeria modu batzuei buruzko informazioa ere jaso dugu. Orobat, txostena prestatzen ari gara datu-bilketa horretatik abiatuta, eta beste txosten bat ere bai, Segurtasun Sailak eta beste estatistika-iturri batzuek emandako datuekin.

Aurten, datuak biltzeko aplikazioa eguneratuko dugu, diseinu arinagoa eta erabilerrazagoa emateko. Bide batez, galdetegiari buruz hausnartzeko eta hobekuntzak egiteko baliatuko dugu aukera hori, Informazio Sistemen Taldearen esparruan.

Bestalde, EAEen indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituzten baliabideak eta zerbitzuak geolokalizatzeko Baliabide Mapa interaktiboa eguneratuta dago etengabe.

EAEko Emakumeen Etxeetan adineko emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentziorako proiektu bat kontratatu dugu.

Se ha elaborado un documento de reflexión sobre la situación concreta de las mujeres víctimas de violencia machista en el marco de la pandemia del COVID-19, dentro del marco del programa de formación Jabetuz con la colaboración del profesorado participante en este programa. Las entidades agrupadas en Edeka han asegurado que se recoja explícitamente la situación de las mujeres con discapacidad.

Se ha contratado a la cátedra UNESCO de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU para la realización de las labores de secretaría técnica de la Mesa Contra la Trata de Mujeres y Niñas con fines de explotación sexual.

El 18 de junio se ha celebrado una sesión de trabajo de las ONGs implicadas en el marco de la Mesa contra la Trata de Mujeres y niñas con fines de explotación sexual, en la que se abordó el diseño de indicadores comunes para la detección de casos de trata.

Se han concedido dos subvenciones nominativas a Askabide y a la Congregación Oblatas para la detección, identificación y gestión del acompañamiento y la atención integral a mujeres víctimas de trata.

Se ha puesto en marcha el nuevo recurso residencial para mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual.

En el marco de Berdinsarea se ha colaborado en el diseño del programa y las sesiones de trabajo de la Comisión de Violencia contra las Mujeres.

Se ha realizado la contratación para la recogida de datos sobre la atención en los recursos de la CAPV que atienden a violencia contra las mujeres. Se ha elaborado el informe-resumen, que este año como novedades, recoge datos relativos al periodo de confinamiento y desescalada originado por la COVID-19 por una parte, así como más información sobre otras formas de violencia recogidas en el Convenio de Estambul. Asimismo, se está realizando el informe derivado de esta recogida de datos, así como el informe con los datos aportados por el Departamento de Seguridad y otras fuentes estadísticas.

Este año se va a actualizar el aplicativo de recogida de datos, con el objetivo de dotarlo de un diseño más ágil e intuitivo. Se aprovechará para reflexionar e introducir mejoras en el cuestionario, en el marco del Grupo de Sistemas de Información.

Se mantiene actualizado en todo momento el Mapa de Recursos interactivo de geolocalización de los recursos y servicios que atienden a las mujeres víctimas de violencia en la CAPV.

Se ha realizado una contratación para la elaboración de un proyecto de prevención de las violencias machistas contra las mujeres mayores en las Casas de las Mujeres de la CAE.

**2021. URTERAKO HELBURUAK ETA EKINTZAK.**

2021eko ekitaldirako planteatutako helburuak erakundearen aurrekontuan gauzatzen dira, gastu-programetan sartutako proiektuen bidez. Hauek dira bete beharreko helburu orokorrak eta dagozkien ekintzak:

**1. PROZESUA BULTZATZEA, COVID-19ARI AURRE EGITEKO ESKU-HARTZE INSTITUZIONALAK EZ DITZAN AREAGOTU, EZ ETA SUSTATU ERE, GENERO-DESBERDINTASUN DISKRIMINATZAILEAK.**

Genero-ikuspegia Eusko Jaurlaritzaren analisi eta erantzunetan sartzeko estrategia ezartzea.

COVID-19ak sortutako egoeraren genero-inpaktuari buruz sensibilizatzea, eta horri buruzko jakintza sortzea.

Covid-19ak sortutako egoeraren aurrean, erakundeen arteko koordinazioa eta komunikazioa areagotzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistari erantzun egokia emateko.

**2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA APLIKATU DADIN SUSTATZEA, ETA PLANGINTZAK OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBE DAITEZEN BULTZATZEA.**

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak ahalik eta ondoen funtziona dezan kudeatzea.

4/2005 Legea aldatzea bultzatzea, 2020an onartutako lege-proiektua oinarri hartuta.

Azterlanak egitea berdintasun-politikak nola dauden jakiteko eta horiek hobetzen laguntzeko.

Jaurlaritzako sailei aholkuak eta laguntza tekniko ematea genero-eraginari buruzko txostenak egiteko, eta dagozkien egiaztatze-txostenak egitea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 21. artikulura bitartean aipatzen diren txostenak).

Esku hartzeko lerroak eta jarraibide orokorrak finkatzea, EAEko botere publikoek berdintasunaren alorrean egin beharreko jarduerak bideratzeko (Berdintasun Legearen 15.1 artikuluan aipatzen dira), eta EAEko administrazio publiko guztiek horiek hedatu eta gara ditzaten sustatzea.

Sailletako, udaletako eta foru-aldundietako planei buruzko txostenak egitea, indarrean dagoen Berdintasunerako Planean ezarritako jarraibide orokorretara egokitzen diren adierazteko, 4/2005 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**OBJETIVOS Y ACCIONES PARA EL AÑO 2021.**

Los objetivos planteados para el ejercicio 2021 se instrumentalizan en el presupuesto del organismo a través de los proyectos que se integran en los programas de gastos. Los objetivos generales con sus correspondientes acciones son:

**1. IMPULSAR EL PROCESO PARA QUE LA INTERVENCIÓN INSTITUCIONAL ANTE LA COVID-19 NO INCREMENTE Y PROMUEVA MÁS DESIGUALDADES DISCRIMINATORIAS DE GÉNERO.**

Implementar la estrategia para integrar la perspectiva de género en el análisis y la respuesta del Gobierno Vasco.

Generar conocimiento y sensibilizar sobre el impacto de género de la situación generada por la COVID-19.

Intensificar la coordinación interinstitucional y la comunicación para dar una respuesta adecuada a la violencia machista contra las mujeres ante la situación generada por la Covid-19.

**2. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD.**

Gestionar el desarrollo óptimo del Consejo de Dirección de Emakunde.

Impulsar la modificación de la Ley 4/2005, tomando como base el proyecto de ley aprobado en 2020.

Realizar estudios que contribuyan al mejor conocimiento de la realidad y a la mejora de las políticas de igualdad.

Asesorar y asistir técnicamente a los departamentos del Gobierno en la elaboración de los Informes de Impacto en Función del Género y emitir los informes de verificación correspondientes, a que se refieren los artículos 19 a 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Establecer las líneas de intervención y directrices generales que han de orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad, a que se refiere el artículo 15.1 de la Ley para la igualdad, e impulsar su despliegue y desarrollo, por parte de todas las administraciones públicas vascas.

Informar los planes departamentales, municipales y forales sobre su adecuación a las directrices generales establecidas por el Plan vigente para la Igualdad, de conformidad con lo previsto en el artículo 15.4 de la Ley 4/2005.

Udallerri, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzen deialdiak egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebaluatu ditzaten, eta dirulaguntza horiek ebaluatzea eta ematea.

EAEko administrazio publikoei laguntza ematea, aholkularitza teknikoa eta juridikoa emanez, elkarlanean arituz eta lan-tresnak garatuz, beren erakundeetan eta politiketan genero-ikuspegia txerta dezaten eta berdintasunaren arloko politika espezifikoak gara ditzaten.

Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntzan eta ikerketan genero-ikuspegia sartzea bultzatzea.

Sektorekako planetan genero-ikuspegia txertatzea bultzatzea, eta lantalde, batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.

Langileen artean berdintasunaren eta generoaren inguruko barne-prestakuntza sustatzea.

Dokumentazio Zentroaren ohiko zerbitzuekin jarraitzea.

### 3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA.

Emakumeek eta gizonen hainbat gizarte-eremutan duten egoerari buruzko urteko txostena egitea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea EAEn nola betetzen, garatzen eta aplikatzen den jakiteko ebaluazioa egiten jarraitzea.

Botere publikoek indarrean dagoen Berdintasunerako Plana gauzatzeko egin duten lanaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria pairatzen dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko Erakundeen arteko II. Akordioaren jarraipen-txostena eta betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egitea.

Emakunderen aplikazioa birdiseinatzea eta eguneratzea, eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei zuzendutako baliabideen eta zerbitzuen irismenari buruzko datuak biltzeko galdetegia berraztertzea, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazioa biltzeko sistema homogeen bat finkatze aldera, esparru guztietan erabili ahal izateko. Estatistika-txostenak argitaratzea; txosten horiek arretaren irismenari buruzko datuekin eta Segurtasun Sailak eta beste estatistika-iturri batzuek emandako datuekin egiten dira.

### 4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GARATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.

Convocar, evaluar y conceder subvenciones para la realización de diagnósticos y/o elaboración, evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres por parte de municipios, cuadrillas y mancomunidades.

Apoyar a las instituciones públicas vascas mediante el asesoramiento técnico y jurídico, la colaboración y el desarrollo de herramientas de trabajo para facilitar la incorporación de la perspectiva de género en su organización y en sus políticas; y para el desarrollo de políticas específicas de igualdad.

Impulsar la formación en género y la incorporación de la perspectiva de género en la formación y en la investigación.

Impulsar la incorporación de la perspectiva de género en los planes sectoriales y participar en grupos de trabajo, comisiones y consejos.

Promover la formación interna del personal en materia de igualdad y género.

Mantener los servicios habituales del Centro de Documentación.

### 3. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

Realizar el informe anual sobre la situación de las mujeres y los hombres en los distintos ámbitos sociales.

Continuar con la realización de la evaluación del cumplimiento, desarrollo y aplicación de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE.

Realizar el seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del Plan vigente para la Igualdad.

Realizar el informe de seguimiento y evaluación anual del grado de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.

Realizar el rediseño y actualización del aplicativo de Emakunde así como la revisión del cuestionario para la recogida de los datos del alcance de los recursos y servicios dirigidos a las víctimas de la violencia contra las mujeres con el objetivo de consolidar el sistema homogéneo de recogida de la información en materia de violencia contra las mujeres para todos los ámbitos. Publicar además los informes estadísticos derivados de la recogida de los datos del alcance de la atención así como de los derivados de los datos aportados por el Departamento de Seguridad y otras fuentes estadísticas.

### 4. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

Emakunderi atxikitako koordinazio-batzorde hauek eta dagozkien lantaldeek funtzionamendu ezin hobea edukitzea ziurtatzea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak, BEGIRA-Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko batzordeak eta Aholku Batzordeak.

Toki-esparruan berdintasun-politikak gauzatzeko Eudelekin adostutako hitzarmena eguneratzea, eta dagozkion lan-batzordeetan eta jarraipen-batzarretan parte hartzea.

Erakundearen helburu berdintsuak dituzten beste autonomia-erkidego batzuetako, Espainiako, Europako eta nazioarteko beste erakunde eta sare batzuekin parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko harremanak ezartzea.

##### 5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO.

Emakumeen ahalduntzeari dagokionez:

Asoziazionismoa sustatzeko, ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoen bidez.

Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea, baliabideetarako sarbidea eta kontrola sustatuz, eta elkarlanerako sareak bultzatuz eta sendotuz.

Ahalduntze soziopolitikoa sustatzea, Emakunderen Aholku Batzordearen osoko bilkuraren kudeaketaren bidez, eta hiru lurralde-azpibatzerdeei prestakuntza eta laguntza ematea.

Elkarrizketa soziopolitikoa sendotzea, Emakunderen Aholku Batzordeak ekitaldi honetan onartutako komunikazio-planaren esparruan urteko plan bat garatuz, eta elkarteek elkarrizketa-eremuetan duten ordezkartza-lanarekin lotutako prozedura bakoitza sortuz, eguneratuz eta berrikusiz.

Eremu pribatuan biztanleak babestea sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoeretan informazioa, aholkularitza, ikerketa eta gomendioak emanez.

BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordeak jasotako kexei erantzuna ematea.

Asegurar el funcionamiento óptimo de las comisiones de coordinación adscritas a Emakunde y de sus correspondientes grupos de trabajo: Comisión Interinstitucional para la igualdad de mujeres y hombres y Comisión Interdepartamental para la igualdad de mujeres y hombres, la Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual, la Comisión para el uso no sexista de la publicidad y la comunicación/BEGIRA y la Comisión Consultiva.

Actualizar el convenio con Eudel para el desarrollo de políticas de igualdad en el ámbito local y participar en las correspondientes comisiones de trabajo y reuniones de seguimiento.

Establecer relaciones de participación y colaboración con otras instituciones y redes con objetivos afines al Instituto del ámbito de las CCAA, estatal, europeo e internacional.

##### 5. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DE LOS OBJETIVOS DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS.

Relativas al empoderamiento de las mujeres:

Promover el empoderamiento personal, colectivo, social y político a través del asesoramiento, la formación y el apoyo económico dirigido al fomento del asociacionismo.

Fomentar el empoderamiento personal, colectivo, social y político, promoviendo el acceso y control de los recursos e impulsando y fortaleciendo las redes colaborativas.

Fomentar el empoderamiento socio-político a través de la gestión del plenario de la Comisión Consultiva de Emakunde así como la formación y acompañamiento de las tres Subcomisiones territoriales.

Consolidar la interlocución socio-política a través del desarrollo de un plan anual en el marco del plan de comunicación aprobado en la legislatura actual por la Comisión Consultiva de Emakunde, así como de la creación, actualización y revisión de cada procedimiento de trabajo vinculados a la tarea de representación de las asociaciones en los distintos espacios de interlocución.

Defender a las ciudadanas y ciudadanos ante situaciones de discriminación por razón de sexo en el ámbito privado mediante la información y el asesoramiento, la investigación, la emisión de recomendaciones.

Dar respuesta a las quejas recibidas en la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación BEGIRA.

## Eraldaketa ekonomikoari eta sozialari dagokionez:

2019-2021 urteetan Lehen Hezkuntzako lehen zikloan berdintasuna, errespetua eta indarkeria eza sustatzeko Nahiko hezkidetza-programa garatzen laguntzea.

Enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-politikak gara daitezen sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren, laguntza ekonomikoen eta aitorten sozialaren bidez.

Batzordeak 2020rako adostutako BEGIRAREN lan-plana garatzea, eta komunikabideekin eta publizitate-agentziekin elkarlanean aritzea, komunikazioaren eta publizitatearen erabilera ez-sexista bultzatzeko.

Gizonduz ekimena garatzea (gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzeko ekimena).

Berdintasunerako XVIII. Gunea (2021) antolatzea.

Publizitate-kanpainak eta informazioa emateko eta sentsibilizatzeko beste ekintza batzuk egitea emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

Herritarren sentsibilizazioa sustatzea, sare sozialen, web-orriaren eta aldizkariaren bidez.

Herritarren sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea, agerraldi publikoen, prentsa artikuluen, prentsa-oharren eta hedabideetako elkarriketen bidez.

Gazteriaren sentsibilizazioa sustatzea, berdintasunari buruzko edukiak azaltzen dituzten eskola-agendak bidaliz.

## Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerrarazteari dagokionez:

Sailarteko eta erakundearteko koordinazioa bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeria erazteko aurrerapausoak emateko.

Beldur Barik kanpaina bultzatu eta kudeatzea (gazte jendearen artean indarkeria prebenitzeko kanpaina).

Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen lagun dezan sustatzea; horretarako, dirulaguntzak emango zaizkie emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebenzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei.

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei erantzun espezializatua emango dieten langileei prestakuntza ematea sustatzea.

## Relativas a la transformación económica y social:

Apoyar el desarrollo del programa coeducativo Nahiko, para la igualdad, el respeto y la no-violencia en el Primer Ciclo de Primaria para los años 2019-2021.

Promover el desarrollo de políticas de igualdad en empresas y entidades privadas, mediante asesoramiento, formación, apoyo económico y reconocimiento social.

Desarrollar el Plan de trabajo de BEGIRA acordado en la Comisión para el 2020 y colaborar con los medios de comunicación y las agencias de publicidad para impulsar un uso no sexista de la comunicación y la publicidad.

Desarrollar la iniciativa Gizonduz dirigida a promover una mayor implicación de los hombres a favor de la igualdad de mujeres y hombres.

Organizar el XVIII Foro para la Igualdad 2021.

Realizar campañas de publicidad, y otros actos de información y sensibilización orientadas a fomentar la igualdad de mujeres y hombres.

Fomentar la sensibilización de la ciudadanía a través de las redes sociales, página web, Revista.

Fomentar la sensibilización y la información de la ciudadanía a través de comparencias públicas, artículos de prensa, notas de prensa, entrevistas en medios de comunicación.

Fomentar la sensibilización de la juventud a través del envío de agendas escolares con contenidos sobre igualdad.

## Relativas a la erradicación de la violencia contra las mujeres:

Promover la coordinación interdepartamental e interinstitucional para avanzar en la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Impulsar y gestionar la campaña Beldur Barik de prevención de la violencia sexista entre la juventud.

Promover la implicación de la sociedad en la prevención de la violencia contra las mujeres mediante la convocatoria de concesión de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsen y promuevan actividades de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres.

Promover la formación de profesionales que den una respuesta especializada a las víctimas de la violencia contra las mujeres.

Genero-indarkeriako egoera egiaztatzeko mekanismoak ugaritzen laguntzea, eta ahalegina egitea hala lehen mailako nola bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen sistema osoak araudi berria aurrera eramateko behar dituen prestakuntza eta baliabide guztiak izan ditzan.

Indarkeriaren biktimei eragindako kaltea errepara dadin sustatzea, batez ere aitortza soziala eginez eta egia zabalduz, eta emakume elkarteekin harremanetan egotea, bizirik atera diren emakumeen EAEko elkarte-sarea indartzeko, Berdinsarearekin elkarlanean eta Emakundek eta EUDELek koordinatuta.

Profesionalen prestakuntza bultzatzea, Jabetuz ekimeneko ikastaroen bitartez (Jabetuz, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa).

Eremu guztietan sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko eta tratatzeko neurrien berri ematea, eta aplikatu daitezkeen sustatzea.

Esku-hartze prebentiboak egiteko eta arreta emateko programak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeriazko adierazpen mota berriak direla-eta (gizakien salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa, ezkontza behartuak...); horretarako, dirulaguntzak emango zaizkie erantzun-programa espezifikokoak behar dituzten indarkeria mota berezi horiek detektatzen eta artatzen laguntzen duten entitateei; erakundearteko koordinazioa hobetuko da, eta prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatu eta babestuko dira.

Promover la ampliación de los mecanismos de acreditación de la situación de violencia de género, e impulsar que todo el sistema de los Servicios Sociales, tanto en atención primaria como en secundaria, cuenten con los recursos y la formación necesaria para llevar adelante la nueva normativa.

Promover la reparación especialmente en su vertiente de reconocimiento social de las mujeres víctimas de violencia y de la difusión de la verdad, en contacto con las asociaciones de mujeres, para impulsar el trabajo en favor del fortalecimiento de la red de asociaciones de mujeres supervivientes de la CAPV, y en colaboración con Berdinsarea, coordinada por Emakunde y EUDEL.

Impulsar la formación de profesionales a través del desarrollo de los cursos enmarcados en la iniciativa Jabetuz-Programa de formación a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres.

Difundir y promover la aplicación de medidas de prevención y tratamiento de acoso sexual y sexista en todos los ámbitos.

Promover programas de intervención preventiva y de atención a nuevas formas de manifestaciones de la violencia contra las mujeres - (trata de seres humanos, MGF, matrimonios forzados, etc.) ... mediante subvenciones a entidades que coadyuven en la detección y respuesta integral a estas situaciones singulares de violencia que necesitan programas específicos, mejora de la coordinación interinstitucional, así como la promoción y apoyo a la formación y la sensibilización.



PROGRAMA	PROGRAMA
3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA	3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA</u>	<u>47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER</u>
EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA	DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

#### MEMORIA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna – benetakoa eta eraginkorra– lortzea, politikagintzaren, ekonomiaren, kulturagintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzeari buruzko urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren bidez esleitutako funtzioen arabera antolatzen du erakundeak bere jarduna (otsailaren 4ko 6/2014 Dekretuaren bidez aldatu zen dekretu hori), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako aginduak betetzea sustatzeko eta EAEn indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean finkatutako helburuen arabera ere. Emakundek 2021erako jarduera-plana ere prestatu du hura garatzeko.

Horrenbestez, Berdintasunari buruzko EAeko Planean, helburu hauek aipatzen dira: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aplikazioa sustatzea, eta, beraz, gobernu onaren bidean aurrera egitea, berdintasunerako politika publikoak hobeto planifikatu, ebaluatu eta koordinatuta; emakumeak ahalduntzea; ekonomia eta gizartearen eraldatzea, eta indarkeria erazteak. Emakundek helburu horietan oinarrituta jardungo du 2021. urtean, ondoren azaltzen den moduan.

2021erako jarduerak kontuan hartuko du, orobat, eta lehenetsunez, COVID-19ak eragindako larrialdi sanitarioaren ondoriozko krisiaren efektuen genero-inkonpatibleren gehiago ezagutzeko eta horren jarraipena egiteko jarduketak abiaraztea, bai eta emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuei arreta emateko zerbitzuen funtzionamendua bermatzeko jarduketak ere.

El Instituto Vasco de la Mujer - Emakunde tiene como finalidad esencial la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, social, cultural y económica.

El Instituto planifica su actividad en consonancia con las funciones que le son atribuidas mediante el Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (modificado por el Decreto 6/2014, de 4 de febrero) con el objetivo de promover el cumplimiento de los mandatos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres y de acuerdo con los objetivos establecidos en el Plan vigente para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE, en cuyo desarrollo Emakunde ha elaborado su propio plan de actuaciones para 2021.

De este modo, promover la aplicación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres para avanzar hacia el buen gobierno de la mano de una mejor planificación, evaluación y coordinación de las políticas públicas para la igualdad, el empoderamiento de las mujeres, la transformación económica y social y la erradicación de la violencia, son los objetivos señalados por el Plan para la Igualdad de la CAE, sobre los que Emakunde centrará su actividad el año 2021, de acuerdo a lo que se expone a continuación.

La actividad para el 2021 tendrá en cuenta, asimismo, y con carácter prioritario el despliegue de actuaciones dirigidas a ahondar en el conocimiento y en el seguimiento del impacto de género de los efectos derivados de la crisis desencadenada por la emergencia sanitaria provocada por la COVID-19, así como, para garantizar el funcionamiento de los servicios de atención para los casos de violencia machista contra las mujeres.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. PROZESUA BULTZATZEA, COVID-19ARI AURRE EGITEKO ESKU-HARTZE INSTITUZIONALAK EZ DEZAN AREAGOTU, EZTA SUSTATU ERE, GENERO-DESBERDINTASUN DISKRIMINATZAILE GEHIAGO.</b></p> <p>Onartutako txosten eta lan-dokumentuen kopurua.</p> <p>Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduketan kopurua.</p> <p>Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko arreta bermatzeko eta/edo egokitzeko jarduketan kopurua.</p> <p><b>2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/ 2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA.</b></p> <p>2.1 Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendua kudeatzea, ahalik eta onena izan dadin.</p> <p>Egindako lan-bileren kopurua.</p> <p>Onartutako txosten eta dokumentuen kopurua.</p> <p>2.2 4/2005 Legea aldatzea bultzatzea, 2020an onetsitako lege-proiektuan oinarrituta.</p> <p>Eusko Jaurlaritzara igorritako lege-proiektuen kopurua.</p> <p>2.3 Legeak eskatzen dituen txostenak eta memoriak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, eta agerraldiak egitea, bai Eusko Legebiltzarrak eskatuta, bai lurralde historikoetako batzar nagusiek eskatuta.</p> <p>Helarazitako txosten eta memoriaren kopurua.</p> <p>Agerraldi kopurua.</p> <p>Legez besteko proposamenen eta erantzundako legebiltzar-galderen kopurua.</p> <p>2.4 Azterlanak egitea errealitatea hobeto ezagutzeko eta berdintasun-politikak hobetzeko.</p> <p>Egindako azterlanen kopurua.</p>	<p>2</p> <p>3</p> <p>4</p> <p>2</p> <p>3</p> <p>1</p> <p>5</p> <p>2</p> <p>15</p> <p>2</p>	<p><b>1. IMPULSAR EL PROCESO PARA QUE LA INTERVENCIÓN INSTITUCIONAL ANTE LA COVID-19 NO INCREMENTE Y PROMUEVA MÁS DESIGUALDADES DISCRIMINATORIAS DE GÉNERO.</b></p> <p>N. de informes y documentos de trabajo aprobados.</p> <p>N. de actuaciones de formación y sensibilización realizadas.</p> <p>N. de actuaciones para garantizar y/o adecuar la atención en materia de violencia machista contras las mujeres.</p> <p><b>2. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/ 2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD.</b></p> <p>2.1. Gestionar el desarrollo óptimo del Consejo de Dirección de Emakunde.</p> <p>N. de reuniones de trabajo realizadas.</p> <p>N. de informes y documentos aprobados.</p> <p>2.2. Impulsar la modificación de la Ley 4/2005, tomando como base el proyecto de ley aprobado en 2020.</p> <p>N. de proyectos de Ley remitidos al Parlamento Vasco.</p> <p>2.3. Remitir al Parlamento Vasco los informes y memorias requeridos por la Ley, así como, realizar las comparecencias que se requieran tanto por parte del Parlamento Vasco como por las Juntas Generales de Territorios Históricos.</p> <p>N. de informes y memorias remitidas.</p> <p>N. de comparecencias.</p> <p>N. de proposiciones no de Ley y preguntas parlamentarias respondidas.</p> <p>2.4. Realizar estudios que contribuyan al mejor conocimiento de la realidad y a la mejora de las políticas de igualdad.</p> <p>N. de estudios realizados.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Argitaratutako materialen kopurua (online eta/edo paperezko argitalpenak).</p> <p>2.5 Jaurlaritzako sailei aholkuak eta laguntza teknikoa ematea genero-eraginari buruzko txostenak egiteko, eta egiaztatze-txostenak egitea (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 21. artikulura bitartean aipatzen diren txostenak).</p>	2	<p>N. de materiales editados, on line y/o en soporte papel.</p> <p>2.5. Asesorar y asistir técnicamente a los departamentos del Gobierno en la elaboración de los Informes de Impacto en Función del Género y emitir los informes de verificación, a que se refieren los artículos 19 a 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.</p>
<p>Posta elektronikoz eta telefonoz erantzundako kontsulta eta informazio-eskarien kopurua.</p>	40	<p>N. de consultas y peticiones de información atendidas a través de correo electrónico y teléfono.</p>
<p>Genero-eragina ebaluatzeko txostenen gainean egindako txostenen kopurua.</p> <p>2.6 Toki-erakundeei aholku ematea, erakunde horietan generoaren araberako eraginaren aurretzeko ebaluazioak ezartzeko.</p>	65	<p>N. de informes de evaluación de impacto en función de género informados.</p> <p>2.6. Asesorar a entidades locales en la implantación de las evaluaciones previas en función del género en sus entidades.</p>
<p>Informazio- eta aholkularitza-saioetan parte hartzen duten udalen eta mankomunitateen kopurua.</p>	20	<p>N. de ayuntamientos y mancomunidades participantes en sesiones de información y asesoramiento.</p>
<p>Informazio- eta aholkularitza-saioen kopurua.</p> <p>2.7 EAEko botere publikoen berdintasunaren arloko jarduera zuzendu behar duten esku hartzeko ildoak eta jarraibide orokorrak, Legearen 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.</p>	5	<p>N. de sesiones de información y asesoramiento.</p> <p>2.7. Establecer las líneas de intervención y directrices generales que han de orientar la actividad de los poderes públicos vascos en materia de igualdad, de acuerdo con lo establecido en el artículo 15.1. de la Ley.</p>
<p>Dokumentuen kopurua.</p> <p>2.8 Emakunderen urteko plana egitea eta garatzea, indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatuz eta aurreko urteko jardueren ebaluazioa kontuan hartuta.</p>	1	<p>N. de documentos.</p> <p>2.8. Elaborar y desarrollar el plan anual de Emakunde en desarrollo del Plan vigente para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE y teniendo en cuenta la evaluación de actuaciones del año anterior.</p>
<p>Jardueren kopurua.</p> <p>2.9 Eusko Jaurlaritzako, Foru Administrazioiko eta Toki Administrazioiko sailei bultzada eta aholkularitza ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egin eta gara ditzaten (4/2005 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako planak).</p>	130	<p>N. de actuaciones.</p> <p>2.9. Impulsar y asesorar a los departamentos del Gobierno Vasco y a la Administración Foral y Local para la elaboración y el desarrollo de los Planes de Igualdad de mujeres y hombres previstos en el artículo 15 de la Ley 4/2005.</p>
<p>Posta elektronikoz eta telefonoz erantzundako kontsulta eta informazio-eskarien kopurua.</p>	30	<p>N. de consultas y peticiones de información atendidas a través de correo electrónico y teléfono.</p>
<p>2.10 Sailletako, udaletako eta foru-aldundietako planei buruzko txostenak egitea, indarrean dagoen Berdintasunerako Planean ezarritako jarraibide orokorretara egokitzen diren adierazteko, 4/2005 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.</p>		<p>2.10. Informar los planes departamentales, municipales y forales sobre su adecuación a las directrices generales establecidas por el Plan vigente para la Igualdad, de conformidad con lo previsto en el artículo 15.4 de la Ley 4/2005.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Zenbat txosten egin diren, udaletako eta foraldundietako berdintasun-planak indarrean dagoen Berdintasunerako Planeko jarraibide orokorrei nola egokitzen zaizkien aztertzeko.	12	N. de informes sobre la adecuación de los Planes municipales y forales de igualdad a las directrices generales del Plan vigente para la Igualdad.
2.11. Udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzen deialdiak egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebaluatu ditzaten, eta dirulaguntza horiek ebaluatzea eta ematea.		2.11. Convocar, evaluar y conceder subvenciones para la realización de diagnósticos y/o elaboración, evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres por parte de municipios, cuadrillas y mancomunidades.
Dirulaguntzen bidez egindako proiektuen kopurua, udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta/edo plan sektorialak prestatu eta ebaluatzeko, baita emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloak egiteko eta ebaluatzeko ere.	36	N. de proyectos subvencionados a municipios, cuadrillas, mancomunidades y agrupaciones de dos o más municipios para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres y/o sectoriales, así como protocolos locales en materia de violencia contra las mujeres.
Dirulaguntzen bidez egindako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen kopurua.	19	N. de planes para la Igualdad de mujeres y hombres elaborados mediante las ayudas.
Dirulaguntzen bidez egindako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen guztizkoari dagokionez, udal-organismoek onartu aurretik txostena prestatzeko Emakundera bidalitakoen ehunekoa.	78	% de planes para la Igualdad de mujeres y hombres elaborados mediante las ayudas que han sido remitidos a Emakunde para su informe previo a la aprobación por los órganos municipales correspondientes, sobre el total de planes para la igualdad de mujeres y hombres subvencionados.
Dirulaguntzen bidez egindako emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen planen kopurua.	2	N. de primeros planes para la Igualdad de mujeres y hombres elaborados mediante las ayudas.
2.12 EAEko administrazio publikoei laguntza ematea, aholkularitza teknikoa eta juridikoa emanez, elkarlanean arituz eta lan-tresnak garatuz, beren erakundeetan eta politikan genero-ikuspegia txerta dezaten eta berdintasunaren arloko politika espezifikoak gara ditzaten.		2.12. Apoyar a las instituciones públicas vascas mediante el asesoramiento técnico y jurídico, la colaboración y el desarrollo de herramientas de trabajo para facilitar la incorporación de la perspectiva de género en su organización y en sus políticas; y para el desarrollo de políticas específicas de igualdad.
Zenbat praktika egoki onartu diren, kudeaketaren arloko berdintasuneko praktiken bilatzailean sartzeko ( <a href="https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/">https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/</a> ).	6-10	N. de buenas prácticas aceptadas para incluirse en el buscador de prácticas de igualdad en la gestión ( <a href="https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/">https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/</a> ).
Dirulaguntza izenduna, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari, laguntza eta aholkularitza emateko eta elkarlanean aritzeko.	1	Subvención nominativa para el apoyo, asesoramiento y colaboración al Consejo Vasco de la Juventud.
Zenbat jardunbide egoki jaso, aztertu, onartu eta erregistratu diren Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuan.	6	N. de buenas prácticas recibidas, analizadas, aceptadas y registradas en el "Banco de Buenas Prácticas en Igualdad".
Zenbat aholkularitza- eta koordinazio-bilera egin diren Ogasun eta Finantza Sailarekin, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko.	4	N. de reuniones de asesoramiento y coordinación con el Departamento de Hacienda y Finanzas para promover la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos del Gobierno Vasco.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Zenbat kontsulta juridiko egin eta erantzun diren berdintasunaren gai espezifikoetarako buruz.	10	N. de consultas jurídicas realizadas y respondidas sobre cuestiones específicas de igualdad.
2.13 Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntzaren eta ikerketaren arloan genero-ikuspegia sar dadin bultzatzea.		2.13. Impulsar la formación en género y la incorporación de la perspectiva de género en la formación y en la investigación.
Zenbat aholkularitza- eta koordinazio-saio egin diren administrazio publikoetako langileentzako ikastaroak diseinatzeko eta antolatzeko.	1	N. de sesiones de reuniones de asesoramiento y coordinación para el diseño y la organización de cursos dirigidos al personal de las administraciones públicas.
Zenbat zuzeneko dirulaguntza eman diren EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterrerako.	1	N. de subvenciones directas concedidas al Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres de la UPV/EHU.
Emakundeko langileek berdintasunari buruz zenbat ikastaro eman dituzten IVAPek egiten duen prestakuntza-eskaintzan.	4	N. de cursos impartidos por personal de Emakunde en la oferta formativa del IVAP sobre igualdad.
Emakundeko langileek zenbat gai eman dituzten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterrean.	3	N. de temas impartidos por el personal de Emakunde en el Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres.
Zenbat laguntza eman zaizkion Deustuko Unibertsitateari, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko master ofizialerako.	15	N. de ayudas al Máster universitario oficial en Intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.
Zenbat gai eman diren Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko master ofizialean (Deustuko Unibertsitatea - 2020-2021).	3	N. de temas impartidos en el Máster universitario oficial en Intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto (2020-2021).
Zenbait ikastaro eskaini diren UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean.	4	N. de cursos impartidos en colaboración con la Dirección para la Igualdad de la UPV/EHU.
Ikerketarako emandako beken kopurua.	3	N. de becas de investigación concedidas.
Lehiaketan saritutako kanpoko ikerlanen kopurua.	1	N. de trabajos de investigación externos premiados en el certamen.
Dirulaguntza izenduna, EHUko Uda Ikastaroen Fundazioari, Emakunderekin batera antolatutako udako ikastaro bat garatzeko.	1	Subvención nominativa a la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU para el desarrollo de un curso de verano coorganizado con Emakunde.
2.14 Administrazioaren jardunean genero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea eta lantalde, batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.		2.14. Impulsar la incorporación de la perspectiva de género en la actividad administrativa y participar en los grupos de trabajo, comisiones y consejos.
Genero-ikuspegiaren araberako zenbat txosten egin diren plan sektorialekin gainean.	2	N. de informes desde la perspectiva de género a planes sectoriales.
Zenbatetan parte hartu den Eusko Jaurlaritzaren batzorde sektorialetan.	5	N. de participaciones en comisiones sectoriales del Gobierno Vasco.
Zenbatetan parte hartu den parte-hartzeko organoetan eta kontseiluetan.	7	N. de participaciones en consejos y órganos de participación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2.15 Aurrerabide Plana garatzea, Emakunden Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua ezartzeko.		2.15. Desarrollar Plan Aurrerabide para la implantación del Modelo de Gestión Pública Avanzada del Gobierno Vasco en Emakunde.
Plana garatzeko egindako ekintzak.	15	Actividades realizadas en desarrollo del plan.
Lan-saioen kopurua.	10	N. de sesiones de trabajo.
2.16 Emakunden Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzea.		2.16. Desarrollar el Plan de Normalización del Uso del Euskera en Emakunde.
Euskara-plana garatzeko egindako jarduerak.	20	Actividades realizadas en desarrollo del plan de Euskara.
Osoki euskaraz egindako prozeduren kopurua.	3	N. de procedimientos realizados íntegramente en euskera.
Jatorrian euskaraz sortutako dokumentuen kopurua.	10	N. de informes originales producidos en euskera.
2.17 Langileen barne-prestakuntza sustatzea, gai propioetan.		2.17. Promover la formación interna del personal, en materias propias.
Programatutako barneko prestakuntza-planaren aurrerapena.	1	Avance del Plan de formación interna programado.
Emakundeko langileentzat egin diren prestakuntza-saioak.	2	Sesiones formativas realizadas para el personal de Emakunde.
2.18 Dokumentazio Zentroaren ohiko zerbitzuekin jarraitzea.		2.18. Mantener los servicios habituales del Centro de Documentación
Erosketa kopurua.	300	N. de adquisiciones.
Katalogazio kopurua.	1.000	N. de catalogaciones.
Erantzundako kontsulten kopurua.	500	N. de consultas atendidas.
Egindako maileguen kopurua.	200	N. de préstamos realizados.
ABSYS datu-baseetan mantendutako erregistroen kopurua.	27.000	N. de registros mantenidos en las bases de datos ABSYS.
Lankidetzeta-hitzarmena, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin, jakintza zabaltzeko.	1	Convenio de colaboración con el Centro Documentación de Mujeres de Maite Albiz para la difusión de conocimiento.
<b>3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA.</b>		<b>3. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.</b>
